



BERRIDATZI BEHEKO ESALDIAK:

1. Atzo erosi nuen koadroa Picassorena da

.....riko.....

2. Taberna, non atzo elkarrekin egon baikinen, erre egin da

.....neko.....

3. Zuk andregaiari oparitutako soinekoa oso polita da

.....n.....

4. Sarek eskutitza idatzi dit, aurten etorriko dela etorriko esateko

.....non.....

5. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek egindako azken bideoa asko gustatu zait

.....n.....

6. Pilotariak Asegarcera pasa dira. Pilotari horiek asko irabaziko dute

.....n.....

7. Duela bi urte donostiar bat ezagutu nuen Gironan. Donostiar hori nahiko jatorra da

.....tako.....

8. Zuek haiei emandako azalpenak ez du bururik ez hankarik

.....n.....

9. Atzo istripua gertatu zeneko bidegurutzean obrak egingo dituzte

.....non.....

10. Egia ote da zorrak ordaindu ezinik atzerrira ihes egin duela dioen zurrumurrua?

.....lako.....

ZUZENKETA

1. Atzo erosi nuen koadroa Picassorena da
ATZO EROSIRIKO KUADROA PICASSORENA DA
2. Taberna, non atzo elkarrekin egon baikinen, erre egin da
ATZO ELKARREKIN EGON GINENeko TABERNA ERRE EGIN DA
3. Zuk andregaiari oparitutako soinekoa oso polita da
ZUK ANDREGAIARI OPARITU DIOZUN SOINEKOA OSO POLITA DA
4. Sarek eskutitza idatzi dit, aurten etorriko dela esateko
SAREK ESKUTITZA IDATZI DIT NON AURTEN ETORRIKO DELA
ESATEN DIDAN
5. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek egindako azken bideoa asko gustatu
zait
PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTSEK EGIN DUTEN AZKEN
BIDEOA ASKO GUSTATU ZAIT
6. Pilotariak Asegarcera pasa dira. Pilotari horiek asko irabaziko dute
ASEGARCERA PASA DIREN PILOTARIEK ASKO IRABAZIKO DUTE
7. Duela bi urte donostiar bat ezagutu nuen Gironan. Donostiar hori nahiko
jatorra da
DUELA BI URTE GIRONAN EZAGUTUTAKO DONOSITARRA NAHIKO
JATORRA DA
8. Zuek haiei emandako azalpenak ez du bururik ez hankarik
ZUEK HAIEI EMAN DIEZUEN AZALPENAK EZ DU BURURIK EZ
HANKARIK
9. Atzo istripua gertatu zeneko bidegurutzean obrak egingo dituzte
BIDEGURUTZEAN OBRAK EGINGO DITUZTE NON ATZO ISTRIPUA
GERTATU ZEN
10. Egia ote da zorrak ordaindu ezinik atzerrira ihes egin duela dioen
zurrumurrua?
EGIA OTE DA ZORRAK ORDAINDU EZINIK ATZERRIRA IHES EGIN
DUELAKO ZURRUMURRUA